

TESIAK 3 MINUTUTAN LEHIAKETAREN OINARRIAK

2012ko DEIALDIA

1128/2012 Ebazpenaren eranskina

Nafarroako Unibertsitate Publikoak apustu sendoa egin du zientzia zabaldu eta hedatzeko, zerbitzatzen duen gizartean laguntzeko beste modu bat den aldetik. IV. Plan Estrategikoak bere ardatzetako batzuetan islatzen du apustu hau. Horregatik, Ikerketarako Errektoreordetzak zientzia zabaldu eta hedatzeko sustatzen duen politikaren barnean, oso komenigarri ikusi da saritzea prestakuntzan ari diren ikasleen eta ikertzaileen artetik, beren lana zergatik den garrantzitsua eta beren ikerketa jarduerarekin gizarteari egiten dioten ekarpena zein den ahalik eta hobekien azaltzen diotenak, espezialista ez den jendeari. Horren bidez, bihar edo etziko ikertzaileak kontzientziatu nahi dira beren lana zabaltzearen garrantziaz, eta aldi berean, gizartearen kultura zientifikoan lagundu.

"Tesiak 3 minututan" lehiaketak tresna baliagarria izan nahi du helburu horiek lortzeko. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketarako Errektoreordetzak sustatu eta antolatu du lehiaketa, Kultura Zientifikoaren Unitatearekin, Komunikazio Zerbitzuarekin eta Hezkuntza Berrikuntzaren Goi Mailako Ikastegiarekin lankidetzan.

Lehenengoa – Deialdiaren xedea

Tesiak 3 minututan lehiaketak, parte hartzaileei, azken ikasmailetakoko ikasleak eta prestakuntzan ari diren ikertzaileak, jartzen dien erronka da azaltzea hizkera errazean, ulergarrian eta jendeari orokorrean iristeko modukoan, beren ikerketaren edo ikasketen amaierako proiektuaren garapena, denbora mugatuko parte-hartze batean. Bere helburua da ikertzaile gazteen lana gizarteari hurbiltzea eta, aldi berean, haiengan sorraraztea zientzia zabaldu eta hedatzeko interesa. Horregatik sarituko da parte-hartzaileen gaitasuna ideiak eraginkortasunez komunikatzeko, eta nola helarazten zaizkion espezialista ez den jendeari, jendeak parte-hartzeko aukera ematen duen formatu batean.

Halaber, lehiaketa honen bidez, lortu nahi da ikertzaileak jabetzea zientzia zabaldu eta helarazteak duen garrantziaz, gizarteak aurrera egiteko eta kultura zientifikoa hobetzeko.

Bigarrena – Finantzabidea

Deialdi honek **2.000 euroko** aurrekontua du osotara. **2012ko gastuen aurrekontuko 31.30.00.482.08 Ikerketa sariak izeneko kontusailaren kargura ordainduko dira, eta dauden modalitateko sariak ordaintzeko erabiliko dira.**

Hirugarrena – Sari modalitateak

Hiru sari deituko dira, bat modalitate bakoitzeko:

- A.- Doktoretza Tesiak. Doktoretza Tesi baten komunikazio hoberenari saria, 1.000 eurokoa.
- B.- Master Amaierako Lanak. Masterraren Amaierako Lan baten komunikazio hoberenari saria, 500 eurokoa.
- C.- Ikasketen Amaierako Proiektuak. Ikasketen Amaierako Lan baten komunikazio hoberenari saria, 500 eurokoa.

Laugarrena - Hautagaiek bete beharrekoak

1.- A modalitatean, Doktoretza Tesiak, parte hartu ahal dute prestakuntzan ari diren ikertzaileak, gutxienez beren laugarren ikerketa urtean badaude, lehen matrikula egin zutenetik kontatzen hasita, eta 2011-12 ikasturtean tutoretza akademikoan matrikulatuta daudenak. Era berean, parte hartzeko onartuak izango dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktoretza tesia irakurri duten ikertzaileak 2011ko irailaren 1etik eskabideak aurkezteko azken egunera bitartean, deialdi honen seigarren oinarrian ezarritako epean.

2.- B modalitatean, Masterraren Amaierako Lanak, parte hartu ahal dute Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren proiektua aurkeztu dutenak 2011-12 ikasturtean, betiere deialdi honen seigarren oinarrian ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute irakurketa.

3.- C modalitatean, Ikasketen Amaierako Lanak, parte hartu ahal dute Nafarroako Unibertsitate Publikoan beren proiektua aurkeztu dutenak 2011-12 ikasturtean, betiere deialdi honen seigarren oinarrian ezarritako epea bukatu baino lehen egin badute irakurketa.

4.- Lehiaketan parte hartzeko eskatzen dutenean, modalitateetarako hautagaiek egiten ari diren doktoretza tesiaren,

master amaierako lanaren edo ikasketen amaierako proiektuaren zuzendariaren onespena izan beharko dute.

5.- Lehiatzaileek lehiaketan ematen dituzten datuak edo informazioa jendurrean jartzeko modukoak izango dira; ikerketak konfidentzialtasun hitzarmen bati lotuta baleude, parte-hartzaileek alde inplikatuekin alderatu beharko dituzte lehiaketan azalduko dituzten edukiak. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du bere gain hartzen hori ez betetzeak ekar ditzakeen arau hausteen ardura.

6.- Parte-hartzaileek lehiaketa egiten den egunean bertan egoteko konpromisoa hartzen dute. Ez da parte-hartze ez presentzialik onartuko bideokonferentzien edo horrelako sistemen bidez.

Bosgarrena – Lehiaketaren garapena

Lehiaketa 2012ko urriaren eta azaroaren artean egingo da.

Parte-hartzaile kopuruaren arabera, antolatzaileek bere egiten dute lehiaketa saio bakar batean egiteko edo aldez aurreko hautaketa fase bat egiteko eskubidea, gai arloen edo modalitateen arabera. Azken fasea jendurreko saio irekia izango da, eta aurkezpen hurrenkera zozketaren bidez zehaztuko da saioa hasi aurretik.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru minutu edukiko ditu bere aurkezpena egiteko. Azaldu behar ditu bere ikerketaren gaia, zein arazo identifikatu duen, bere ikerketak nola laguntzen duen irtenbide bat bilatzen eta zein eragin izango duen bere lanak gizartean oro har, edo zehazki, komunitate akademiko eta ikertzailean.

Aurkezpena prosaz eta gaztelaniaz egin behar da. Laguntzeko elementu gisa, soilik erabili ahalko da diapositiba baten proiektzioa. Ezin da erabili beste ezein elementu (esaterako, bideo edo audio artxibategiak), ez bestelako osagarririk, adibidez, musika tresnak, laborategiko materiala, janztekoak, e.a.

Hiru minutuko gehienezko denbora gainditzen duten lehiatzaileak automatikoki baztertuko dira.

Azken fasea bidez grabatuko da eta aurkezpen irabazleak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrialdean egongo dira ikusteko. Baliteke jendurreko saioak komunikabideen bidez zabaltzea eta, beharrezkoa bada, Interneten bidez.

Lehiaketa egin aurretik, parte-hartzaileei aukera emango zaie jendaurrean mintzatzeko trebetasunak eta oratoria teknikak jasotzeko saio batera joateko.

Seigarrena - Eskerak aurkeztea

Deialdi honetan parte hartzeko interesa daukaten pertsonak beren eskaera aurkeztuko dute horretarako ematen den inprimakia betez. Inprimakia Kultura Zientifikoko Atalaren web-orriaren bidez eskuratuko da (www.unavarra.es/unidadculturacientifica), eta argi adierazi beharko da sariaren zer modalitatetan parte hartu nahi duten.

Kultura Zientifikoko Atalak gainbegiratuko du deialdi honetako laugarren oinarriko 1., 2. eta 3. ataletan zehazten diren baldintzak betetzen ote diren; ez da beharrezkoa agirien bidez egiaztatzea eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela.

Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legeko 38.4 artikuluan aurreikusten diren bitartekatako edozeinen bidez (1999ko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen foru lege hori).

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingo da, posta zerbitzuko langileak, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzan, eta ondoren egiaztatu eta bidali Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Erregistrora (Arrosadiko campusa, z/g, 31006 Iruñea).

Eskabideak aurkezteko epea 2012ko irailaren 4an hasi, eta 2012ko irailaren 25ean bukatuko da.

Tesiak 3 Minututan lehiaketara aurkezteak esan nahi du onartzen direla deialdiaren oinarriak.

Zazpigarrena – Sarituen betebeharrak.

1. Saridunek jasotzen duten diru kopurua nahi bezala erabili ahalko dute, eta interesdunei 2012ko abenduaren 31 baino lehen ordainduko zaie.

2. Unibertsitateak sarien diru-kopuruaren zati bat atxikiko du zerga modura, indarrean dagon araudiaren arabera.

3. Deialdiko oinarriak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzur egiten bada, saria kendu ahal izango da. Hala gertatzen denean, doakionak sariagatik hartutako dirua itzuli beharko du.

Zortzigarrena – Sarien epaimahaia

Ikerketa errektoreordea izango da epaimahaiko burua, eta epaimahaia beste lau kidek osatuko dute. Kide hauek errektoreak izendatuko ditu, ikerketa errektoreordeak proposatuta. Lau kide horietatik bi Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileak izango dira. Beste biak ez dira NUPekoak izango, eta beren profil profesionala zientzia-dibulgazioarekin eta komunikazioarekin lotuta egongo da.

Bi ordezeko ere izendatuko dira. Horietako bat Nafarroako Unibertsitate Publikokoa izango da, eta bestea kanpokoa. Bi hauek kide titularrak ezin joaten direnean arituko dira.

Epaimahaia Ikerketarako errektoreordeak eskatuta osatuko da, eta horretarako deialdia egingo du. Halaber, Ikerketerako errektoreordeak egingo ditu epaimahaiaren jarduna errazteko beharrezkoak diren gestioak.

Bederatzigarrena. Balioesteko irizpideak

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat, parte-hartzaileak balioesteko garaian:

Ulermena: Aurkezpena jendeak ikerketa uler dezan lagungarria izatea.

- Ikerketaren nolakoaren eta helburuen adierazpen garbia izatea.
- Ikerketan funtsezkoa zer den adieraztea.
- Aurkezpena hurrenkera logiko batean ematea.

Inplikazioa: Aurkezpena jendearen jakin-minaren pizgarria izatea.

- Parte-hartzaileak ez du ikerketa erraztu edo mailaz beheragotzen.
- Parte-hartzaileak bere lanaren aldeko grina erakusten du.
- Parte-hartzailea gai da publikoaren arreta bereganatu eta mantentzeko.

Komunikazioa: Ikerketaren gaia eta bere garrantzia aditua ez den publikoari egoki zaion hizkeran komunikatzen da.

- Hizlariak aski erabiltzen ditu ikus-kontaktua eta ahozko erregistroa, erritmo jarraiari eusten dio eta bere buruaz seguru dago.
- Hizlariak jargoi zientifikoa erabiltzeari muzin egiten dio, erabli behar duen terminologia azaltzen du eta aurrekariak azaltzen ditu, zenbait puntu argitzeko.
- Hizlariak denbora egoki erabiltzen du.
- Diapositibek aurkezpena aberasten dute, ez diote baliorik kentzen: argiak, irakurgarriak eta zehatzak dira.

Hamargarrena – Sariak ematea

1. Epaimahaiaren erabakia lehiaketa egiten den saioan bertan jakinaraziko da.
2. Epaimahaiak Unibertsitateko errektoreari bidaliko dio sariak emateko proposamena, eta lehiaketaren helburuak betetzeari eta aurkezpenen kalitateari buruzko txosten arrazoituarekin batera. Errektoreak behin betiko ebazpena emango du, sariak emateko erabakia eta saritutako hautagaien zerrenda hartzen dituen.
3. Sariren bat eman gabe utz daiteke epaimahaiaren iritzia arabera, edo hautagairik ez dagoelako.
4. Sariak banatzeko ekitaldi publikoa 2012. urtea bukatu baino lehen egingo da.
5. Ikerketarako Errektoreordetzak jakinaraziko du errektorearen behin betiko ebazpena, sari emakidarena, eta interesdunei jakinaraziko die sariak emateko ekitaldi publikoaren aurretik.

Hamaikagarrena – Argitalpena

Deialdi honen oinarriak argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta unibertsitateko bitarteko elektronikoen bidez hedatuko dira. Kultura Zientifikoaren Unitateak ziurtatuko du hedapen hori.

Hamabigarrena – Errekurtsoak

Deialdi honen eta deialdi honetako oinarrien aurka, eta deialdi honen ondorio diren ekintzen aurka interesdunek zilegi dute berraztertze errekurtsoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako Auzitegietan, bi hilabeteko epean; epeok deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasiko dira.